

**SAREAN Elkarteak eskola-egutegia oinarriak arauak ematen dituen Hezkuntza Sailburutzaren Erabakian agertzen diren berrikuntzei dagokionez ondorengo balorazioa egiten du:**

Araudi honetan aurreko urteekiko hiru aldaketa esanguratsu izan dira:

- 2. puntuan, arratsaldeko saioak kentzeko aukerari dagokionez, *“Gabonetako eta Aste Santuko oporraldien aurreko klase-egunean”* arratsaldeko lanaldia kendu ahal izateko baimena onartzen du.
- 5. puntuan dio: *“klaseak ez dira irailaren 11a baino lehen hasiko”*.
- 4. puntuan, ohiko ahapaldiari honako erantsi zaio: *“Uztailean eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste aldietan, abuztuan salbu, zuzendaritza talde kide bat, gutxienez, berehala lokalizatzeke moduan egongo da”*.

Lehengo aldaketa egokia iruditu zaigu, ikastetxe bakoitzaren autonomiaren esku aukera berri bat jartzen baita, askotan oso estimatua izan litekeena.

Bigarren aldaketari dagokionez, egokiago irizten digu ikastetxeei daukaten autonomia maila hori onartze aldera, eskola bakoitzeko Ordezkapen Organo Gorenaren baitan uztea hasierako data jartzearen erabakia, beti ere derrigorrezko bost egunak zainduz gero. Beraz, irailaren 8an hasi ahal izatea, beti izan den bezala.

Aldaketa hau bertan behera uztea eskatu diogu Hezkuntza Sailari eta horren berri ikastetxeei adieraztea.



Idatzi honen arrazoi nagusia, ordea, hirugarren aldaketa da, bera baita gehien arduratzen gaituena.

Erabaki honek ez du, gure ustez, aurretik beharko lukeen adostasun mailarik, ez baita eragina jasango duen kolektiboarekin balizko aldaketaz hitzik ere egin.

Aldaketa esanguratsua suposatzen du zuzendaritza taldeen lan baldintzetan. Orain artean hauen lan egutegia gainontzeko irakasleena bezalakoa izan da, hots irailaren 1etik ekainaren 30era. Nahiz eta onartzen dugun kasu askotan egutegi honek ez duela errealitatea agertzen eta urteko beste une askotan ere ikastetxeko lan eta arazoez arduratuz jarduten dutela (obrak, LZ-RPTak, prestakuntza ikastaroak, ikasturteko antolakuntza, bilerak...). Are gehiago, ohikoa dela zuzendaritza taldeko irakasleez gain beste irakasle asko ere lanean aritzea lan-egutegi horrek markatzen dituen epez kanpo ere, eta zer esanik ez ordutegiz. Beraz, kuestionatzen ari garena ez da beharra edo erabakiaren justifikazioa, erabakia hartzeko era baizik.

Hau esatearekin batera, gogora ekarri nahi dugu zuzendaritzaren funtzioa eta kargura hurbiltzea erraztuko luketen hainbat neurri, zeintzuk eskola kidegoak sobera identifikatu eta sarritan idatzita agertu baititu:

- Denbora gehiago zuzendaritza taldekideen karguek beraiekin dituzten lanetarako.
- Zuzendariak ikastetxeen ordezkari gisa onartzea eta beraiekin komunikazio bide arinak ireki eta mantentzea.
- Eskumen berriak ikastetxeko proiektuak aurrera eraman ahal izateko.
- Gaur egun inondik inora nahikoak ez diren pizgarri ekonomikoak handitzea eta berariazko osagarriaren finkapena arautzea.

Beraz, zeharo desegokia irizten diogu kolektibo honi eskakizun maila areagotzea aurretik honen justifikazioa eta zuzentasuna behar adina landu gabe eta, noski, beste inolako neurri lagungarririk erantsi gabe. Aipatu berri ditugun zerrendakoak, adibidez.

Horrela, bada, zera eskatu diogu Hezkuntza Sailari: hartu berri duen erabaki hau ere bertan behera uztea eta zuzendaritzaren lana erraztu eta karguetara iristea erakargarriago bihurtzen lagunduko duten neurriak hartzen ahalegintzea.

SAREAN Elkartea

